




MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

ECOFROLADA kutsadura murriztean sinesten duten pertsonei zuzenduta dago, eta, beraz, mota honetako pertsonen profila plastiko gutxi duen produktu bat erosteko prest dagoen jendea da.

Hiri handiak, lanegun biziak eta denbora falta... faktore horien batuketaren ondorioz, etxeko sukaldeak gero eta hutsagoak daude. Izan ere, 10 espainiarretik 6-k etxetik kanpo bazkaltzen dute lan-astean.




Zentzu horretan, estresa eta mugitzeko denbora falta etxean jatea eragozten diguten arrazoi nagusiak dira. Egoera horrek gure elikadurari arreta ez eskaintzea eragiten du, eta ondorioz, gure errendimenduan eragin negatiboa du. Izan ere, neke fisiko eta mentalak eragiten ditu, eta hori espainiarren artean kezarik ohikoenetako bat da.

Honen ondorioz, langile askok janari aurrez prestatua erostea erabakitzen dute, baina lortzen dutena plastikoaren erabilera zeharo handitzea da. Hortaz, urtero 400 milioi tona plastiko ekoizten dira munduan eta sortutako hondakinen % 9 baino ez da birziklatzen, beraz, ez da lagungarria hondakin gehiago sortzea.

Hala ere, gero eta jende gehiagok munduarekiko erantzukizuna izatea erabaki du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleok, esaterako, 2019an 33.725 tona plastiko birziklatu genituen.


Gure bezeroen profila 25-60 urte artean dituen pertsona da, birziklapenaren alde dagoena. Izan ere, profil hau betetzen duten langileak Zuatzu edo Miramon poligonoetan lan egiten duten pertsonek bete dezakete; hortaz, bertako enpresatan saltzen saiatuko gara.

Zuatzu:





Miramón:



Datu hauek aztertu ondoren, arazoei aurkitu diegun konponbide bat kutsadurarik sortzen ez duen eta bere 100% ekologikoa, jasagarria, osasuntsua eta birziklagarria den entsalada bat sortzea da; hau da, ECOFROLADA.